apika
steam laborategia

Alternatibak

Irakasleentzako gida

Aurkibidea:

Helburu orokorrak	3
Saioak eta iraupena	4
Edukiak	5
Hezitzaileentzako gomendioak	6
Ikasleekin saio bakoitzean erabiltzeko baliabideak	7
1.saioa: Alternatiba burujabeetara gerturatzen	8
2.saioa: Ba al dago alternatibarik sarean?	18
3.saioa: Sare sozial libreak ezagutzen	30

Helburu orokorrak

Gida honen helburua

- Teknologia jabedun eta libreen arteko ezberdintasuna ezagutzea.
- Ikasleek egiten duten teknologiaren erabilerari buruzko hausnarketa sustatzea.
- Sare sozial digitalen erabilerari buruz hausnartzea.
- Harreman digital onuragarri eta ez onuragarrien testuinguruan murgiltzea.
- Alternatiba teknologiko libreak ezagutzea.

Ikasmaterial hau **Iametza Interaktiboa S.L.**-k sortu du, **Make Irigoien** aholkulari pedagogikoaren laguntzarekin.

Ikasmaterial hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak diruz lagundu du. Material honek aipatutako sailaren onespena du (data).

Saioak eta iraupena

55 minutuko 3 saio:

1.SAIOA

Alternatiba burujabeetara gerturatzen

Jarduerak:

1. Zer dira alternatiba burujabeak? *(Denbora: 10 minutu)*
2. Zergatik dira garrantzitsuak alternatiba burujabeak? *(Denbora: 10 minutu)*
3. Alternatiba burujabeak irudikatzen. *(Denbora: 10 minutu)*
4. Software libreak ezagutzen. *(Denbora: 15 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

2.SAIOA

Ba al dago alternatibarik sarean?

Jarduerak:

1. Sareak eta hodeiak ere ba al dute jaberik? *(Denbora: 10 minutu)*
2. Alternatiba libreak sarean: .eus hodeia eta webguneak. *(Denbora: 10 minutu)*
3. Diseina ezazu zure webgunea. *(Denbora: 10 minutu)*
4. Alternatiba libreak sarean: informazioa gordetzeko eta bilatzeko. *(Denbora: 15 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

3.SAIOA

Sare sozial libreak ezagutzen

Jarduerak:

1. Arduraz erabiltzen ditugu sare sozialak? *(Denbora: 10 minutu)*
2. Alternatibak: Zer da Fedibertsoa? *(Denbora: 15 minutu)*
3. Sare sozial libreak ezagutzen. *(Denbora: 15 minutu)*
4. Sare sozial libreetatik harago digitalean libre jarduteko aukera ugari. *(Denbora: 10 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 5 minutu)*

Edukiak:

- Alternatiba digitalak
- Aztarna digitala
- Erabilera arduratsua
- Fedibertsoa
- Harreman digital arduratsuak
- Hodeia
- Ingurune digitala: osagaiak
- Librea versus jabeduna
- Teknologia burujabetza
- Sare sozialak
- Sistema eragileak
- Softwarea eta hardwarea

Hezitzailearentzako gomendioak

Bloke honetan proposatzen diren jardueren denboralizazioa egokitu daiteke ikasleen ezaugarrien edo interesen arabera. Finean, ikaslearen digitalarekiko duen begirada zabaltzea bilatzen da, bere egunerokoan ohikoak dituenen inguruko ezaugarrien kontzientzia hartzea, beraien diseinuaren logikaz jabetzea eta bestelako alternatibekiko lehen hurbilketa egitea.

Bereziki garrantzitsua izango da ikasleek ulertzea egunerokotasunean erabiltzen dituzten tresna digitalen jabedunen errealitatea. Horrez gain, hauen aurrean dagoen mugimendu burujabea eta alternatibak ezagutzeko helburua du unitateak.

Ikasleekin saio bakoitzean erabiltzeko baliabideak

1.SAIOA

Alternatiba burujabeetara gerturatzen

Helburuak:

- Ingurune digitalaren erabilera-mailari buruz hausnartzea.
- Gailu teknologikoak osatzen duten elementuen ezagutza handitzea (sistema eragilea, softwarea).
- Teknologia jabedun eta libreen arteko ezberdintasuna ulertzea.
- Teknologia burujabetzaren garrantziaz hausnartzea.
- Alternatiba digital libreen inguruko ezagutza handitzea.

Edukiak:

- Ingurune digitala
- Sistema eragilea
- Softwarea
- Librea versus jabeduna
- Erabilera arduratsua
- Teknologia burujabetza

Jarduerak

1. Zer dira alternatiba teknologiko burujabeak? *(Denbora: 10 minutu)*
2. Zergatik dira garrantzitsuak alternatiba burujabeak? *(Denbora: 10 minutu)*
3. Alternatiba burujabeak irudikatzen. *(Denbora: 10 minutu)*
4. Software libreak ezagutzen. *(Denbora: 15 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

Hezitzailearen gomendioak

Saio honetan “Asmazank!” web aplikazioaren bidez jolastu beharko da. Horretarako, ikasleek gailu bat beharko dute eta jolasa pantaila handian proiektatu beharko da.

Alternatiba burujabeetara gerturatzen

Argudiaketa curricularra

0. Sarrera atalean dago argudiaketa curricularraren inguruko informazio guztia.

Jakintzagaia	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak eta loturak KD deskriptoreekin				
		KD 1	KD 2	KD 3	KD 4	KD 5
EUSKARA ETA LITERATURA	2		2.1 2.2			
	4	4.1				
	6	6.1	6.2		6.3	
GEOGRAFIA ETA HISTORIA	1	1.1				
	6	6.2				
BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAK	1	1.2				
	2					2.1
TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	1				1.3	
	6				6.1	
TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK	5		5.1		5.1	5.1

Saioaren garapena

1– Zer dira alternatiba teknologiko burujabeak?

(Denbora: 10 minutu)

A) Noren logoak dira irudian agertzen direnak?Nongoak dira? Norenak? Pista: GAFAM deitzen zaie ere bai.

B) Irakurri beheko testuak eta azpimarratu hiru ideia nagusi.

Guk erabiltzen dugun teknologia (sare sozialak, aplikazioak, nabigatzaileak...) enpresa handiek sortzen eta kontrolatzen dute askotan (Apple, Google, Meta, Microsoft...). Honako hau dio Wikipediak GAFAM artikuluan:

"Haien artean ezberdinak badira ere, oligopolioa sortzeko izan dituzten baldintza komunak hainbat faktoretan laburbildu daitezke, hegemonia neoliberalarekin lotura estua dutenak: konbergentzia teknologikoa, deserregulazioa eta ekonomiaren globalizazioa. Abian jartzen dituzten estrategia guztiak multinazional gehienen ezaugarri dira. GAFAM taldearen helburu orokorra da honako hauek beren eskuetatik pasatu eta kontrolatzea: komunikazio interpertsonala eta euskarri digitaletako edukien zabaltze zein bertan gertatzen diren jarduera guztiak."

1– Zer dira alternatiba teknologiko burujabeak?

(Denbora: 10 minutu)

Eredu horren parean badago beste bat: **teknologia burujabea.** Teknologia burujabetzak esan nahi du guk geuk —komunitateek, herriek edo norbanakoek— kontrola izatea teknologiaren gainean: nola funtzionatzen duen, zer informazio biltzen duen eta zein helburutarako erabiltzen den.

Horretarako, badaude **alternatiba etiko eta irekiak:** software librea, pribatutasuna babesten duten aplikazioak, publizitaterik gabeko sare sozialak, komunitateak kudeatutako sareak, eta abar.

Erabiltzen ditugun teknologia jabedun eta pribatiboetan, **jabe diren enpresa handiak bertan jartzen edo partekatzen ditugun datuen jabe bihurtzen dira**, guk alako batean ezabatzen baditugu ere. Beraz, gure etxeko giltzak ematea bezala litzateke.

C) Hausnartu lauko taldetan galdera hauei erantzunda:

- Norbait zure etxera sartu ahal izatea nahi al zenuke zure baimenik gabe?
- Zure etxeko giltza nori emango zenioke? Zergatik?
- Zure mugikorrean, tabletan edo ordenagailuan gordetzen duzun informazioa norentzat da? Nor sartzen da “barrura”?
- Zer ikusi eta pentsatuko luke zure etxeko norbaitek zure sare sozialetara, zure elkarrizketetara inolako mugarik gabe sartuko balitz?
- Sare sozial batek zure gustuak, kontaktuak, mezuak edo kokapena gordetzen baditu... ez al da zure etxeko atea irekitzea bezalako zerbait? Beste modu batez esanda, norbaiti zure gauza pertsonalak, zure intimitatea agerian uztea?

2–Zergatik dira garrantzitsuak alternatiba burujabeak?

(Denbora: 10 minutu)

Alternatiba digital burujabeak zer diren ikusi dugu, baina zergatik dira hain garrantzitsuak? Ondoren, lau arrazoi nagusi topa ditzakezu:

Askatasun digitala indartzen dute:

1. Nola funtzionatzen duen jakin dezakegu (gardentasuna).
2. Gure datuak guk kontrolatzen ditugu (ez enpresek).
3. Ez dugu derrigorrezko publizitaterik, algoritmo ezkutu edo zaintza sistemarik jasaten.

Autonomia teknologikoa ematen dute:

Ez gaude enpresa erraldoi gutxi batzuen menpe. Guk ere sor ditzakegu gure tresnak, gure hizkuntzan, gure beharretara. Horrek tokiko eta kolektiboki kontrolatutako teknologia ahalbidetzen du.

Parte-hartzea eta elkarlana sustatzen dituzte:

Software librea edo komunitate bidezko alternatibak erabiltzeak elkarlanean oinarritutako eredua bultzatzen du. Teknologia ez da "produktua" bakarrik, prozesu partekatu bat bihurtzen da.

Tokiko hizkuntza eta kultura digitalak babesteko aukera dira:

Sistemak euskaraz eraiki daitezke, gure komunitatearen balioak islatuz. Ez gara kanpoko enpresa baten algoritmoaren arabera moldatu behar.

A) Launaka jarri eta erabaki zuentzat zein diren bi ezaugarririk garrantzitsuenak eta zergatik.
B) Talde handian partekatu.

3–Alternatiba burujabeak irudikatzen

(Denbora: 10 minutu)

A) Aurreko atalean landutako ezaugarri eta arrazoi horiek kontutan hartuta, imajinatu teknologia produktuen diseinatzaileak zaretela. Lauko taldeak egin eta sortu zuen alternatiba digital burujabearen ideia zirriborroa:

- Zein motatako tresna da? (softwarea, aplikazioa, sare soziala, gailu teknologikoa...)
- Izena jarri eta logoa marraztu.
- Ezaugarriak: Zer egiten du? Zertarako balio du?
- Aurreko garrantzien lau puntuetatik zeintzuk betetzen ditu?
- Esan daiteke zure tresna alternatiba digital burujabea dela? Zergatik?
- Zuek erabiliko zenukete zuen tresna? Orain erabiltzen duzuen tresnaren bat ordezkatuko zenukete honekin?

B) Talde handian aurkeztu proiektuak.

4–Software libreak ezagutzen

(Denbora: 15 minutu)

Alternatiben munduan murgildu gara eta orain ingurune digitalaren elementu konkretuen barruan dauden alternatiba zehatz batzuk aztertuko ditugu. Horietako bat da software librea.

Gogoratu zer den softwarea:

Ordenagailuaren agindu multzo bat da, hau da, softwareak ordenagailuari zer egin behar duen esaten dio. Mota askotakoak daude, besteak beste, sistema softwareak (gailu baten funtzionamendua kontrolatzen duen. Adibidez, Windows), programazio softwareak (programatzaileek kodea idatzi, probatu eta garatzeko erabiltzen dituzten aplikazioak) eta aplikazio informatikoak (erabiltzaileek zeregin konkretu bat egiteko erabiltzen duten programa. Adibidez, testua lantzeko, Microsoft Word).

Aipatutako adibide horiek guztiak, ordea, jabedun softwareak dira (ezagunenak). Zer dira orduan software libreak? (ikus hurrengo orriko irudia):

4–Software libreak ezagutzen

(Denbora: 15 minutu)

Iturria:
WIKIPEDIA: *Software Librea*, Wikipedia, entziklopedia askea. Esteka.

4–Software libreak ezagutzen

(Denbora: 15 minutu)

A) Ulertu dugu zer esan nahi duen software librea kontzeptuak. Froga dezagun ikasitakoa **Asmazank!** Galdera-erantzunen jolasaren bidez.

Iturria: Asmazank.

Irakaslearentzako esteka (jokoaren moderatzailea)

Ikasleentzako esteka (jokalariak)

4–Software libreak ezagutzen

(Denbora: 15 minutu)

B) Binaka ipini eta aukeratu webgune honetan agertzen diren tresnetatik probatzea gustatuko litzaizukeen alternatiba digital burujabe bat:

C) Aurkeztu talde osoari zein den eta zergatik aukeratu duzuen hori.

5– Zer ikasi dugu?

(Denbora: 10 minutu)

A) Gaurko saioan ikusitakoarekin, azaldu bost lerrotan: zer diren, zure hitzetan, alternatiba teknologiko libreak eta jarri adibide bat. Zure iritziz garrantzitsua da alternatiba teknologiko libreak erabiltzea? Zergatik?

B) Partekatu zure iritzia gelako bi kiderekin.

Ba al dago alternatibarik sarean?

Helburuak:

- Hausnarketarako eta argudiaketarako gaitasuna lantzea.
- Cookien abantailak eta desabantailak ezagutzea.
- Gailu teknologikoak eta ingurune digitalak osatzen duten elementuen ezagutza handitzea.
- Teknologia jabedun eta libreen arteko ezberdintasuna ulertzea.
- Sarearen egitura hobeto ulertzea.
- Hodeia zer den ulertzea.
- Teknologia burujabetzaren abantailak identifikatzea.

Edukiak:

- Ingurune digitala
- Teknologia librea
- Teknologia burujabetza
- Hodeia
- Sarea
- Bilatzaileak
- Webguneak

Jarduerak

1. Sareak eta hodeiak ere ba al dute jaberik? *(Denbora: 10 minutu)*
2. Alternatiba libreak sarean: .eus hodeia eta webguneak. *(Denbora: 10 minutu)*
3. Diseina ezazu zure webgunea. *(Denbora: 10 minutu)*
4. Alternatiba libreak sarean: informazioa gordetzeko eta bilatzeko. *(Denbora: 20 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 5 minutu)*

Hezitzailearen gomendioak

Saio honetan bideoak proiektatu beharko dira.

Ba al dago alternatibarik sarean?

Argudiaketa curricularra

0. Sarrera atalean dago argudiaketa curricularraren inguruko informazio guztia.

Jakintzagaia	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak eta loturak KD deskriptoreekin				
		KD 1	KD 2	KD 3	KD 4	KD 5
EUSKARA ETA LITERATURA	2		2.1 2.2	2.1		
	3		3.1 3.2			
	4	4.1				
	6		6.2		6.3	
MATEMATIKA	2		2.2			
	3	3.1 3.3				
GEOGRAFIA ETA HISTORIA	1	1.1				
	6	6.2				
BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAK	1	1.2				
	2					2.1
HEZKUNTZA PLASTIKOA, IKUSIZKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA	1	1.1				
	3		3.3			
TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	1	1.1			1.3	
	6				6.1	
TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK	5				5.1	5.1

Saioaren garapena

1– Internetek eta hodeiak ba al dute jaberik?

(Denbora: 10 minutu)

Definizioa: Sarea edo Internet mundu mailako komunikazio-sarea da, ordenagailuen bidez ezarria. Teknikoki, WWW protokolo multzo bat da, eta fitxategi edo orri horiek erraz kontsultatzeko aukera ematen du. Jakingo duzunez, fitxategi edo orriak ikusteaz gain, beste zerbitzu batzuk ere erabil daitezke Interneten: posta elektronikoak bidaltzea, lineako elkarrizketak (IRC), lineako jokoak, etab. Hodeia, berriz, Internet adierazteko metafora bat da.

Iturria:
TXIKIPEDIA: *Internet*, Wikipedia, entziklopedia askea. Esteka.

Internet osatzen duten webguneak zerbitzari izeneko ordenagailu erraldoietan ostatatuta daude. Beraz, hodeia edo Internet, azpiegitura fisikoetan kokatzen da, **ez da "ikusezina".**

A) Ikus **Nork agintzen du Interneten** bideoaren hasiera, 0:00tik 02:40ra arte.

B) Binaka jarri eta erantzun:
Zein plataformatan dago bideoa?
Ikus **hemen** nor dagoen atzean eta zein diren arauak.

1– Internetek eta hodeiak ba al dute jaberik?

(Denbora: 10 minutu)

C) Baina, webgune horiek nork kontrolatzen ditu, orduan? Zerbitzariek ba al dute jaberik? Irakurri ondorengo testu hauek:

Hiru enpresa dira web-ostatatzearen merkatuaren jaun eta jabe: "Amazonek, Googlek eta Cloudflarek, elkarrekin, web-ostatatze zerbitzuak eskaintzen dizkiete mundu osoko webguneen laurdenari." Honek esan nahi du webguneen laurden bat, hau da, % 25 inguru, enpresa handi horien ordenagailu erraldoietan (zerbitzarietan) dagoela.

Iturria:
PUNTUEUS Fundazioa: *Hiru enpresa dira web-ostatatzearen merkatuaren jaun eta jabe*, Sarean.eus. Esteka.

Zergatik da hau garrantzitsua?

- **Webguneak ez daude gure esku, beste norbaiten kontrolpean daude.**
- **Enpresa horiek erabaki dezakete zer gorde, zer ezabatu edo nor sartu daitekeen.**
- **Boterea oso zentralizatuta dago, eta horrek pribatutasun, segurtasun eta burujabetza arazoak sor ditzake.**

1– Internetek eta hodeiak ba al dute jaberik?

(Denbora: 10 minutu)

D) Eztabaidatu taldean galdera hauen inguruan:

- Izenez ezagunak egiten zaizkizu enpresa hauek?
- **Internet** guztiontzako tresna bat da? Ala batzuek sarbide eta erabilerarako botere handiagoa daukate?
- Zure datuak hodeian daudenean, zuk kontrolatzen dituzula uste duzu?
- Zein arrisku uste duzu dagoela enpresa gutxi batzuek hainbeste informazio eta botere pilatzen dutenean?

E) Gobernuek eta enpresa handiek, beraz, botere handia izan dezakete Interneten. Ikusi **Nork agintzen du Interneten** bideoa 04:10etik aurrera.

2– Alternatiba libreak sarean: .EUS webguneak

(Denbora: 10 minutu)

Errealitate honen aurrean, ordea badira **gertuko alternatiba libreak** ere. Webguneen domeinuen mundua (.com, .es, .net), antzerako egoera gertatzen da. Webgune gehienak, .com domeinupean sortuta daude.

Euskal Herrian, ordea, Puntu Eus fundazioak, **.EUS domeinua** sortu zuen duela hamar urte eta honen bidez, Euskara eta euskal kulturaren komunitatearentzako domeinua era sare moduko alternatiba bat osatu zuen erraldoi digitalen aurrean. '.eus', hortaz, tresna bat da, webgune euskaldunak erregistratzeko euskarazko alternatiba.

A) Ikusi Zer dago .EUS domeinu baten atzean? bideoa (1. Minututik 3.38. minutura).

B) Launaka jarri. Sartu euskarazko Wikipedian .eus artikuluan eta bertan dagoen informazioarekin osatu gurutzegrama.

Ezagutzen duzu Lumi? Edonork H5P eduki interaktiboak sortzeko eta partekatzeko aukerak ematen ditu. Librea, euskaraz eta doakoa.

Erantzunak: 1. erregistradorea, 2. kultura, 3. Patronatua, 4. Domeinua, 5. Lehendakaria.

3– Diseina ezazu zure webgunea

(Denbora: 10 minutu)

Ulertu dugu beraz, alternatiba digitalik badagoela Euskal Herrian.

A) Orain, diseinatu zure web burujabea. Jar zaitez web sortzaile baten paperean eta erantzun:

- Zer helburu izango luke zure webguneak? (adib.: jolasa, ikasketa, komunitatea, hizkuntza...)
- Nork erabiliko luke? (ikasleak, lagunak, herriko jendea, mundu guztia...)
- Zer hizkuntzatan egongo litzateke?
- Zer informazio gordeko luke?
- Zein domeinu nahi duzu? Zein URL esteka jarriko zenioke?
- Alternatiba burujabeak bilatuko zenituzke? (software librea, zerbitzari propioak, domeinua...)
- Marraztu zein itxura izango lukeen zure webguneak: logoa, atalak,azpiatalak eta abar.

Ideiak behar badituzu, aztertu gogoko duzun webgune bat edo hauetariko bat:

- gamerauntsia.eus
- paperjale.eus

B) Erakutsi zure diseinua alboko bi ikaskideri.

4– Alternatiba libreak sarean: informazioa gordetzeko eta bilatzeko

(Denbora: 20 minutu)

Interneten, gure egitekoak errazteko hainbat erreminta ditugu gaur egun. Esaterako, askotan gure dokumentuak, argazkiak edo fitxategiak ez ditugu gure ordenagailuan (lokalean) bakarrik gordetzen, baizik eta Interneten, "hodeian" gordetzen ditugu. Horretarako hainbat baliabide ditugu gaur egun, ohikoenak: Google Drive edo One Drive dira, besteak beste. Besterik ezagutzen duzue? Hauek tresna jabedunak dira, datuen babesa eta pribatutasuna zalantzan jartzen dutenak. Baina, ba al dago alternatibarik?

A) Bete ondorengo taula

normalean zure gauzak biltegiratzeko erabiltzen duzun tresna edo aplikazio batekin.

*Alternatiba librea bilatzeko ikus orri honetako “Hodeia” atala.

Biltegi digital moduan erabiltzen duzun ohiko tresna edo aplikazioa.	Librea da ala pribatiboa (jabeduna)?	Zertarako erabiltzen duzu?	Zein motatako edukia igotzen duzu bertara?	Aukeratu duzun tresna pribatiboa (jabeduna) bada, ba al dago alternatibarik?*

4– Alternatiba libreak sarean: informazioa gordetzeko eta bilatzeko

(Denbora: 20 minutu)

Informazioa gordetzeaz gain, informazioa bilatzeko ere erabiltzen dugu Internet. Eskola, esaterako, informazio bilketa eta informazioaren lanketarako espazio nagusienetako bat da.

Web nabigatzaileek ematen digute web orrietara iristeko aukera. Hauek, Interneten webguneak ikusteko eta arakatzeko erabiltzen diren softwareak dira. Nabigatzailearen bidez web orriak ireki, testuak irakurri, bideoak ikusi, fitxategiak deskargatu edo inprimatu daitezke. Mozilla Firefoz da, adibidez, euskal komunitate librezaleak gomendatzen duena: librea da eta euskaraz dago. Zein nabigatzaile erabiltzen dituzu zuk? Hamaika daude.

B) Launaka jarri eta datuak aztertu.

Hauek mundu mailan gehien erabiliak datuen arabera:

Iturria: StatCounter

4– Alternatiba libreak sarean: informazioa gordetzeko eta bilatzeko

(Denbora: 20 minutu)

Esteka honetan sartu edo QRa eskaneatu datu gehiago ikusteko: Hego Amerika eta Europako datuak hain zuzen ere.

Une errealean indarrean dauden datuak eskuratzeko, StatCounter web orrira jo.

C) Konparatu datu guztiak eta bi ondorio esanguratsu nabarmendu.

D) Talde handian partekatu.

Nagitzaileek, bestalde, bilaketa-motorrak edo bilatzaileak dituzte. Modu lehenetsian bat ekartzen dute konfiguratuta baina pertsonalizatu daitezke. Zerbaiten bila bagabiltza, erabiltzen dugun nabigatzaile eta bilatzaileen arabera, emaitzak desberdinak izango dira.

4– Alternatiba libreak sarean: informazioa gordetzeko eta bilatzeko

(Denbora: 20 minutu)

E) Zein bilatzaile erabiltzen duzu zuk?

Orri honetan, “Bilatzaileak” eta “Informazio bilatzaileak” ataletan lan honetarako erabil daitezkeen tresna libreak topa ditzakezu. Erantzun ondorengo galdera hauek:

- Agertzen diren alternatibetatik erabiltzen duzu baten bat? Zein?
- Zertarako erabiltzen duzu (eskolako lanak egiteko, aisialdiko informazioa bilatzeko...)?
- Ez baduzu bat ere erabiltzen, zein tresna erabiltzen duzu?
- Zein motatako informazioa bilatzen duzu?
- Zenbat aldiz erabiltzen dituzu tresna hauek (Egunero, astean behin baino gehiagotan, astean behin, hilabetean behin, oso gutxitan)?

Sakontzeko...

Askotan, Adimen Artifiziala ere baliatzen dugu informazioa bilatzeko. Interneteko ohiko bilatzaileez haratago, Chat GPT bezalako tresnen bidez lortzen dugu informazioa modu errazean. Ba al dakizu, ordea zer den Adimen Artifiziala (AA)? Ordenagailu programa edo makina batek pentsatzeko eta ikasteko duen trebetasuna da.

Bideo honetan duzu honen inguruko azalpen guztia.

5– Zer ikasi dugu?

(Denbora: 5 minutu)

A) Azaldu gaurko saioan landu eta ikasi duzuna Bazenekien....? galdera pare bat sortuz.

Ba al zenekien

?

Ba al zenekien

?

B) Partekatu 3 ikaskiderekin.

3.SAIOA

Sare sozial libreak ezagutzen

Helburuak:

- Alternatiba teknologiko burujabeak ezagutzea
- Sare sozialen funtzionamendua hobeto ulertzea
- Teknologia jabedun eta libreen arteko ezberdintasuna ulertzea
- Ikasleek egiten duten sare sozialen erabileraren inguruan hausnartzea

Edukiak:

- Ingurune digitala
- Teknologia librea
- Teknologia burujabetza
- Sare sozialak
- Fedibertsoa
- Komunitate digitala

Jarduerak

1. Arduraz erabiltzen ditugu sare sozialak? *(Denbora: 10 minutu)*
2. Alternatibak: Zer da Fedibertsoa? *(Denbora: 15 minutu)*
3. Sare sozial libreak ezagutzen. (Denbora: 15 minutu)
4. Sare sozial libreetatik harago digitalean libre jarduteko aukera ugari. *(Denbora: 10 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 5 minutu)*

Hezitzailearen gomendioak

Saio honek eskatzen du bideoak proiektatzeko aukera izatea.

Sare sozial libreak ezagutzen

Argudiaketa curricularra

0. Sarrera atalean dago argudiaketa curricularraren inguruko informazio guztia.

Jakintzagaia	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak eta loturak KD deskriptoreekin				
		KD 1	KD 2	KD 3	KD 4	KD 5
EUSKARA ETA LITERATURA	2		2.12.2	2.1		
	3		3.13.2			
	4	4.1				
	5		5.1			
	6	6.1	6.2		6.3	
MATEMATIKA	2		2.2			
	3	3.13.3				
	6					6.1
GEOGRAFIA ETA HISTORIA	1	1.1				
	6	6.2				
BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAK	1	1.2				
	2					2.1
HEZKUNTZA PLASTIKOA, IKUSIZKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA	1	1.1				
	3		3.3			
TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	1	1.1			1.3	
	6				6.1	
TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK	5		5.1		5.1	5.1

Saioaren garapena

1–Arduraz erabiltzen ditugu sare sozialak?

(Denbora: 10 minutu)

Sare sozialak gure egunerokotasunean errotuta dauden tresna digitalak dira. Komunikatzeko, aisialdirako eta batzuetan ikasteko ere erabil ditzakegu. Kontziente gara, benetan egiten dugun erabileraren inguruan?

Ondorengo irudi honetan ikus dezakezu gazteek egunero hiru sare sozial baino gehiago erabiltzen dituztela.

A) **Hirunaka jarri eta datuak aztertu.** Zein dira, zuen ustez, taulan ageri diren 3 datu esanguratsuak, adinaren eta sexuaren arabera? Saiatu datu horien zergatiak argudiatzen.

6.9. grafikoa
Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Iturria:
GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: *Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoa 2024*, Gazteaukera.eus. Esteka.

1–Arduraz erabiltzen ditugu sare sozialak?

(Denbora: 10 minutu)

B) Zerrendatu zenbat sare sozial erabiltzen dituzuen egunerokotasunean eta erantzun ondorengo galdera hauei:

1.

2.

3.

4.

- Zenbatean behin eta zertarako erabiltzen dituzue? (lagunekin komunikatzeko, influencerrei jarraitzeko, edukia sortzeko...)
- Ba al dakizue sare sozial libre horiek libreak diren ala jabedunak (pribatiboak) diren?
- Zer motatako datuak jartzen dituzue bertan? (datu pertsonalak, argazkiak, zuen iritziak eta ideiak...)
- Nor uste duzue jabetzen dela sare sozialetan jartzen dituzuen datuez?

C) Sare sozialetan zer nolako giroa antzematen duzue? Irakurri artikulu hau eta aukeratu esaldi esanguratsu bat hautaketaren zergatia azalduz. Indarkeria matxista sare sozialetan

D) Talde osoarekin partekatu

2–Alternatibak: Zer da Fedibertsoa?

(Denbora: 15 minutu)

Segur aski, aurreko ariketan aipatutako sare sozialak jabedunak dira (TikTok, Instagram, WhatsApp, BeReal...). Horrek esan nahi du kontsumitzen dituzun sareak enpresa erraldoien eskuetan daudela. Jabetzaren bidez, enpresek sare sozial horren erabakiak, arauak eta funtzionamendua kontrolatzen dituzte, baita bertan dauden datuak ere (zure datuak, besteak beste).

Errealitate honen aurrean, ordea, badaude alternatibak eta gaurkoan euskal alternatiba burujabeak ezagutuko ditugu: Euskal Fedibertsokoak.

Iturria: Wikipedia

A) Ikusi Fedibertsoa: sare sozial federatuak bideoa (1:49-4:18) eta azaldu esaldi batean zure hitzetan zer den euskal fedibertsoa. Partekatu gelako lauzpabost lagunekin.

B) Ikusi dugu, datuen babesa, burujabetza eta askatasun digitalaz gain, fedibertsoak beste onura nagusietako bat eskaintzen duela, plataforma ezberdinen arteko elkarreragina, hain zuzen ere. Wikipediako fedibertsoa artikuluan topa ditzakezu Euskal Fedibertsoa osatzen duten tresnak. Aukera ezazu gehien gustatzen zaizun sare soziala eta azaldu klaseko ikaskide pare bati ondorengo ezaugarri hauek:

- Sarearen izena:
- Zertarako erabiltzen da?
- Zer abantaila ikusten dizkiozu tresna honi?
- Erabiliko zenuke?

3–Sare sozial libreak ezagutzen

(Denbora: 15 minutu)

Fedibertsoan, beraz, hainbat eta hainbat alternatiba sozial libre topa ditzakegu. Fedibertsoa ez du enpresa handi batek kudeatzen; modu komunitarioan kudeatzen da haren jabetza, segurtasunaren kudeaketa, datuen erabilera eta abar.

A) Jarri hirunaka eta hausnartu: Zergatik uste duzue sare sozial digital libreak ez direla pribatiboak bezain ezagunak eta erabiliak?

B) Ikus dezagun erabili ohi ditugun sare sozialek alternatiba librerik ba ote duten fedibertsoan. Erabili fedibertsoa.eus web-orrialdeko informazioa ondorengo taula hau betetzeko:

Sare soziala	Alternatiba fedibertsoan	Alternatiba fedibertsoan
X		
Youtube		
Instagram		
TikTok		
Spotify		

4–Sare sozial libreetatik harago digitalean libre jarduteko aukera ugari.

(Denbora: 10 minutu)

Gaurko saioan sare sozialak hizpide izan baditugu ere, digitalean erabat libre jarduteko proposamen ugari topatu ditzakegu.

A) Hartu minutu batzuk iturriak aztertzeko:

Digitalean ere aske! (DigiPad La Digitale plataforma librean sorturiko baliabidea da.)

B) Erantzun galderei: zeinek erakarri du zure arreta? Zergatik? Partekatu klaseko hiru lagunekin.

C) Partekatu klaseko hiru lagunekin.

5–Zer ikasi dugu?

(Denbora: 5 minutu)

Gaurko saioan kontzeptu eta hitz asko aipatu ditugu. **Osa dezagun hitz hodeia**. Arbela edo orri handi bat erabilita, klasekide bakoitzak gaurko saioan aipatutako hitz/kontzeptu bat esango du altuan eta denen ekarpenekin saioaren hitz-hodeia sortuko dugu.

Sakontzeko...

Saioan jorratutako gaien inguruan gehiago sakontzeko, hona hemen *Hodeia Ez Da Existitzen* webguneko artikulu batzuk:

- 'X-tik irten nahi? Nor dago Mastodonen eta Blueskyren atzean? Nola finantzatzen da bakoitza?'.
- 'Mastodon eta Twitter/X: bi eredu kontrajarri'.
- Atera argazkiak eta parte hartu euskal Fedibertsoko egutegian'.